

28/10/2009

Gaztain erre festa ospatuko dute larunbata honetan Igartubeitin

Larunbatero aurrera eramaten dira Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoan tailer didaktiko desberdinak, non on gaztetxoek beraien gurasoekin batera baserriaren inguruko kontzeptu desberdinak eta bizimodua jokuen bitartez ezagutzeko aukera zabaltzen dute. Aste bukaera honetan ere hauetako bat aurrera eramango da eta hilabeteko azken larunbata denez, berezia izango da.

Baserriaren ingurunea, abarkak, saskiak, baratza eta fruituak... gauza ugari eta desberdinak ikasi dituzte Igartubeitiko tailerretan parte hartzen dutenek eta oraingoan ere horrela izango da. Aurreko asteburuan gaztainak eta sagarrak biltzen aritu ziren gaztetxoak eta larunbata honetan gaztain erre festa ospatuko da baserrian. Gaztainak nola erretzen diren ezagutu eta noski, hauek dastatzeko aukera izango dute parte hartzaileek. Normalean arratsaldeko 16:30etan hasten dira tailerrak gure baserrian, baina oraingoan ordu bat berainduago emango zaio hasiera, arratsaldeko 17:30etan konkretuki.

Izena eman

Larunbatean aurrera eramango den tailer didaktiko honetan parte hartu nahi dutenek, aldezturik izena eman beharko dute, egunean bertan dena prest egon ahal izateko: Igartubeiti museoan, 943 72 29 78 zenbakian; igartubeiti@gipuzkoa.net helbidean edo web orrian.

Animatu!